



## Alkanoak

1. Ondorengo baldintzak betetzen dituzten alkano guztien egiturak emanb eta dagozkien IUPAC izenak idatzi.

- a)  $C_8H_{18}$ , formula enpirikoa. Bakarrik ditu hidrogenoak karbono primarioen gainean.
- b)  $C_6H_{14}$ , formula enpirikoa. Karbono kuarternario batekin.
- c)  $C_7H_{16}$ , formula enpirikoa. Karbono tertziario batekin.
- d)  $C_6H_{14}$ , formula enpirikoa. Bi karbono sekundarioekin

2. Ondorengo irakite-puntuak, bigarren lerroan aipatzen diren alkanoekin erlazionatu, taularik erabili gabe

*irakite-puntuak* ( $^{\circ}C$ ): 106, 116, 126, 151.

*Alkanoak*: oktanoa, 2-metilheptanoa, 2,2,3,3-tetrametilbutanoa, nonanoa.

3. Ondorengo konposatuen bromazioan ( $25^{\circ}C$ -tan, argiaren aurrean) eratuko diren konposatuen egiturak adierazi. Kasu bakoitzean produktu nagusia zein izango den azaldu: Ondorengo irakite-puntuak, bigarren lerroan aipatzen diren alkanoekin erlazionatu, taularik erabili gabe

- a) propanoa
- b) 2,2-dimetilpropanoa
- c) ziklopentanoa
- d) metilziklopentanoa
- e) toluenoa

4. Ondorengo konposatuetatik zein edo zeintzuk emango duten monoklorazio erreakzioa selektibitate altuarekin adierazi.

- a) propanoa
- b) 2,2-dimetilpropanoa
- c) ziklopentanoa
- d) metilziklopentanoa

5. Isopentanoaren klorazio erradikalarioak ( $300^{\circ}C$ -tan) zenbait konposatu monokloratu ematen du. Produktuen proportzioak aurreikusi